

EGIAZTAPENAREN ONDORIOAK

Konpetentzia profesionalak Ebaluatu eta Egiaztatzeko Prozeduraren bidez lortutako konpetentzia-atalen egiaztapenak egiaztatze partzial metagarriaren ondorioak ditu. Horren helburua da, hala badagokio, bidezko Lanbide Heziketako titulua edo Profesionaltasun Ziurtagiria lortzera bideratutako prestakuntza osatzea.

Konpetentzia profesionalak ebaluatu eta egiaztatzearen ondorioek Estatuko lurralde osoan dute hedadura eta baliozkotasuna.

LANBIDE HEZIKETAKO TITULUAK lortzeko

Lanbide Heziketako titulu batean jasotako konpetentzia-atal guztien egiaztapen ofiziala lortuz gero, tituluak eskuratu ahal izateko, beharrezkoa izango da:

1.- Tituluak eskuratzeko eskakizunak betetzea:

- **Erdi-mailako** Lanbide Heziketarako:

1. Gutxienez titulu hauetako bat izatea:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua.
- Oinarrizko lanbide-titulua.
- Batxilergoko titulua.
- Unibertsitateko titulua.
- Lanbide Heziketako Teknikari edo Goi Teknikari titulua.

2. Gainditu izana:

- Hasierako Lanbide Kualifikazioaren Programa baten derrigorrezko moduluak.
- Hezkuntza Administrazioak baimendutako ikastetxe publiko eta pribatuetan Erdi-Mailako Heziketa Zikloak egin ahal izateko berriazko prestakuntza-ikastaro bat.
- Erdi edo Goi-Mailako Heziketa Zikloetara sartzeko proba edo hogeita bost urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba.
- Batxilergo Bateratu Balioanizduneko lehen bi mailen multzoan gehienez ere bi ikasgai gainditu gabe.
- Ertainen erreformako lehen ziklo esperimentaleko bigarren maila.
- Unibertsitate-orientazioko edo unibertsitate aurreko kurtsoa.
- Arte Aplikatuen eta Lanbide Artistikoen irakaskuntzetatik 1963ko planeko hirugarren maila edo komunen bigarren maila esperimentala.

- **Goi-mailako** Lanbide Heziketarako:

1. Gutxienez titulu hauetako bat izatea:

- Batxilergoko titulua.
- Unibertsitateko titulua.
- Lanbide Heziketako Teknikari edo Goi Teknikari edo Teknikari Espezialista titulua.
- Batxilergo Bateratu Balioanizduneko (BBB) titulua.

2. Gainditu izana:

- Batxilergo Esperimentaleko edozein modalitateko bigarren maila.
- Goi- Mailako Heziketa Zikloetara sartzeko proba.
- Hogeita bost urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba.
- UZI edo PREU.

2.- Ikastetxe ofizial batean matrikula egitea.

3.- Dagokion lanbide-moduluen baliozkotzeak eskatzea.

4.- Konpetentzia-atalei lotu gabeko lanbide-moduluak egitea.

PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIAK lortzeko

Konpetentzia profesionalak ebaluatu eta egiaztatzeko prozeduraren bitartez profesionaltasun-ziurtagiri batean bildutako konpetentzia-atal **guztiak** lortuz gero, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak dagokion profesionaltasun-ziurtagiria luzatuko du.

Konpetentzia profesionalak ebaluatu eta egiaztatzeko prozeduraren bitartez profesionaltasun-ziurtagiri batean bildutako konpetentzia-atal **guztiak lortuko ez balira**, honako urrats hauetako bati jarraitu ahal izango zaio:

A.- Konpetentzia profesionalak ebaluatu eta egiaztatzeko prozeduraren hurrengo deialdian parte hartzea.

B.- Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko falta diren konpetentzia-atalak lortzea, prestakuntzaren bidez:

1.- II. Prestakuntza Planean adierazitako prestakuntza egitea. Lanbide-kualifikazioko 2. eta 3. mailatan profesionaltasun-ziurtagiriei dagozkien lanbide-moduluetarako prestakuntzara sartzeko, eskakizun hauetako bat bete beharko da:

- 2. mailarako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea, eta, 3. mailarako, Batxiler-titulua izatea.
- Prestakuntza-moduluaren edo moduluen maila bereko profesionaltasun-ziurtagiria eta/edo sartu nahi deneko profesionaltasun-ziurtagiria edukitzea.

- Lanbide-arlo edo eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiria izatea, 2. mailarako; nahiz lanbide-arlo edo eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiria izatea, 3. Mailarako.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko eskakizun akademikoa betetzea, 2. mailarako, edo goi-mailakoetan sartzekoa, 3. mailarako; edota hezkuntza-administrazioek araututako dagozkion sarbide-probak gainditu izatea.
- 25 urtetik edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gaindituta edukitzea.
- Prestakuntza etekinez egitea ahalbidetuko duten behar adinako prestakuntza edo lanbide ezagupenak izatea.

Profesionaltasun-ziurtagirietara sartzeko, matematikako eta gaztelaniaz (eta, balego, hizkuntza koofizialean, dagokion mailan) komunikatzeko probak egingo dira.

2.- Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuari eskatzea profesionaltasun-ziurtagiria luza dezan.